BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

3000

111/2012 DEKRETUA, ekainaren 19koa, Galdameseko Arenaza-I haitzuloa (Bizkaia), monumentu-multzo izendapenaz, sailkatutako kultura-ondasun deklaratzeko espedientea Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legeak agindutakora egokitzeko, eta mugaketa berria, deskribapen berria eta babes araudi berriak ezartzeko.

Uztailaren 17ko 265/1984 Dekretuaren bidez (1984ko abuztuaren 4ko EHAA, 132 zk.), Galdameseko Arenaza-I haitzuloa (Bizkaia) monumentu historiko artistiko deklaratu zen.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioko 148.1.16 artikuluaren babesean eta Autonomia Estatutuko 10.19 artikuluaren arabera, kultura-ondareari buruzko eskumen osoa bereganatu zuen. Eskumen hori baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen.

Bertako lehenengo xedapen gehigarriak dioenez, aurreko araudiaren arabera kultura-interesa duten ondasuntzat deklaratutakoak aurrerantzean sailkatutako kultura-ondasunak izango dira. Bestalde, aipaturiko lege hori indarrean jarri baino lehenago hasitako kultura-intereseko ondasunen espedienteek ere legean xedatutakoari men egin behar diote, halaxe ezarrita dago-eta bigarren xedapen gehigarrian.

Horrenbestez, 2004ko urtarrilaren 26ko Ebazpenaren bidez, berriz ireki zen, eta jendaurrean jarri eta interedunei entzuteko izapidea abiatu, Galdameseko Arenaza-I haitzuloa (Bizkaia) monumentu-multzo kategoriako kultura-ondasun sailkatua deklaratzen duen adierazpenaren espedientea, 7/1990 Legeak agindutakora egokitzeko, zeren lege horren 12. artikuluak eskatzen dituen dokumentuak falta batzituen.

Geroago, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen 2010eko urriaren 5eko Ebazpenaren bidez, aipaturiko egokitze espedientea sustatu zen, eta mugaketa berria, deskribapen berria eta babes-araudi berria ezarri ziren.

Informazioa jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko izapideak egin ondoren, honako hauen alegazio-idazkiak jaso dira, garaiz eta behar bezala: «Áridos y Canteras del Norte, S.A.U.» merkataritza-sozietatearena, Izate ingurumen-elkartearena, Burnia espeleologia elkartearena eta Galdames Bizirik elkartearena. Bizkaiko Foru Aldundiaren idazkia eta Galdamesko udalarena ez onartzea erabaki da, garaiz kanpo aurkeztu direlako.

Behin aurkeztutako alegazioak aztertu eta gero, erantzuna eman zaie alegazioei Euskal Kultura Ondarearen Zentroak egindako txosten teknikoen bidez (txostenok espedientean daude). Txosten horien ondorioak oinarri hartuta burutu da dekretu honetan xedatutako babes-araubidea.

Hori dela-eta, zati batean onartzen dira aurkeztutako alegazioetako batzuk, eta I. (mugaketa), II. (deskribapena) eta III. (babes-araubidea) eranskinetako zenbait alderdi aldatzen dira, kultur ondasun sailkatu aitortzeko, monumentu-multzo kategorian, Arenaza-I haitzuloa, Galdamesen (Bizkaia) dagoena.

Ondorioz, uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen 11.1 eta 12. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, Kultura espedienteko txostenak ikusi ondoren, eta Kulturako sailburuaren proposamenez eta Gobernu Kontseiluak 2012ko ekainaren 19ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Galdamesen (Bizkaia) dagoen eta monumentu-multzo izendapenaz Sailkatutako Kultura Ondasuna den Arenaza-I haitzuloa Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legean ezarritakoari egokitzea, eta dekretu honen I. eranskinean azaltzen diren arrazoiak direla-eta, ondasunaren mugaketa moduan eranskin berean agertzen dena hartzea.

2. artikulua.– Sailkatutako ondasunaren deskribapena egitea, kultura ondarearen alorrean indarrean dauden legeek diotenaren arabera, dekretu honen II. eranskinean adierazitako eran.

3. artikulua.– Dekretu honen III. eranskinean agertzen den babes-araubidea onestea.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Kultura Sailak dekretu honen berri emango du Jabetza Erregistroan, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan ezarritakoa betetzeko, eta, horrekin batera, interesdunei eta honako erakunde hauei jakinarazi: Galdamseko udalari, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura eta Lehendakaritza Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari.

Bigarrena.– Kultura Sailak eskaera egingo dio Galdamesko udalari udal hirigintza-araudia egokitu dezan monumenturen babes-araudiak ezartzen dituen betebeharretara, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 12.2 artikuluak hala xedatzen duelako.

Hirugarrena.– Argitara dadila dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, jende guztiak horren berri izan dezan.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Monumentu-multzoaren mugaketak hartzen duen eremuan egin beharreko esku-hartzeek aldez aurretik Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunen baimena beharko dute, eta baimen horren ondotik eskuratu behar da udal lizentzia, halaxe xedatzen du-eta Euskal Kultura Ondareari buruzko 1990eko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 29.1 artikuluak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Dekretu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, aurretik haren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Jaurlaritzaren Kontseiluari hilabeteko epean, edo bestela zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan bi hilabeteko epean, azkenekoz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko ekainaren 19an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

EKAINAREN 19KO 111/2012 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

MUGAKETA

Arenaza-I haitzuloa babesten dela bermatzeko hiru eremu ezarri dira: aztarnategia eta santutegia babesteko eremua –aldi berean bi azpieremutan banatzen dena: haitzuloaren atarikoa eta gainerakoa–; Karstaren babes orokorrerako eremua, eta Erauzteko jarduerak baimenduta dauden babes orokorreko eremua.

1. eremua. Aztarnategia eta santutegia babesteko eremua: eremu honetan daude haitzuloa hainbat aldi kulturaletan okupatua izan zela adierazten duten aztarnak. Eremua bi gunetan banatzen da. 1.1 Aztarnategia babesteko gunea: indusketa arkeologiko historikoak egiten diren atariko aretoa; haitzuloaren sarbideak eta areto handiak eratzen dute, haien artean ate metalikoak daudela, eta haitzulotik kanpoko inguruneak ere bai, haren aurreko aldeak, bertaraino iristeko eta gaur egungo bi ateek mugatzen duten gorako bideraino. 1.2 Santutegia babesteko gunea: santutegiko gainerako zatia, labar-irudiak dituzten haitzuloko aldeak barne.

2. eremua. Karstaren babes orokorreko eremua: espedientean eremu honentzat adierazitako muga gehienak bat datoz ondoko sistema karstikoarenekin eta urez elikatzen laguntzen duten zona mugakideekin; alabaina, San Pedro gunearen egoitzako hiri lurzorua kanpoan geratzen da. Hau da, mugak haitzuloaren ekialdean dauden depresioetan sortzen diren kareharrietan hasi (uren banalerrotik behera) eta, mendebalderantz, errepideraino eta herriraino heltzen dira. Hegoaldeko muga Aranaga errekarekiko failak eta herriak ezartzen dute. Iparraldeko muga, aldiz, irudizko lerro batek ezartzen du, errepideko X 491.696 eta Y 4.790.211 koordenatuetatik abiatuta, 450 metroko kotaraino heltzen dena, X: 492.602 eta Y 4.790.471 puntuan; 450 metroko lerroan jarraitzen du, harik eta Vista Alegre auzotik hurbil dagoen aparkalekutik abiatuta X 492.289 eta Y 4.790.770 kotaraino doan lerroarekin bat egin arte (El Uno zona, Elvirako urmaelaren ondoan); ondoren, Hundimiento izenekoraino jarraitu, iparralderako bidea hartu, eta La Balsa del Sauco eta Mina Princesaren arteko banalerrotik igarotzen da; azkenean, Pico Mayor mendian amaitzen da. Lerro horrek ekialderantz egiten du Ganeran (823 m) gailurren lerroak eta Alto de la Arenak (728 m) Pico Mayor-eraino (740.37 m) marraztutako uren banalerroraino. Eremu hau mugatzen duen lerroa I. eranskinaren planoan marraztu da.

3. eremua. Erauzteko jarduerak baimenduta dauden babes orokorreko eremua.

Eremu honetan Galdames II harrobia dago. Haitzuloaren eraginpeko aldea ukitzen ez duen alde txiki bat utzi nahi da, haitzulotik eta karstetik urrunduta lan jakin batzuk egiten jarraitu ahal izateko eta jarduera ahalik eta kontrolatuen izanda.

Lau angeluko joera duen formarekin mugatu da, eta ondokoa da haren ibilbidea: irudizko lerro bat da, X 491.696 eta Y 4.790.211 koordenatuak dituen errepideko puntutik ateratzen dena X 492.602 eta Y 4790.471 puntuan 450 metroko kotara heltzeko; gero ipar-mendebalderantz jarraitzen du 450 metroko lerroak, harik eta Vista Alegre auzotik hurbil dagoen aparkalekutik abiatuta El Uno zonaraino (Elvirako urmaelaren ondoan) doan lerroarekin bat egin arte X 492.289 eta Y 4.790.770koordenatuan.


ZONA 1
ZONA 2
ZONA 3
ESKALA / ESCALA
400 200 0 400 Meters
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural
Planoa / Plano:
ARENAZA - I
Lurraldea / Territorio: BIZKAIA
Udalerria / Municipio: GALDAMES
Data / Fecha: 06/06/2012
Eskala / Escala: 1:18.000

EKAINAREN 19KO 111/2012 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

DESKRIBAPENA

Arenaza-I haitzuloa San Pedro auzoan dago, Galdamesko (Bizkaia) udalerrian.

Mendebaldetik irekitzen den ahoaren atzean gela handi bat dago, eta hortik gidari bezala erabil daitekeen galeria nagusia dago. Zuloan, lurpean, hainbat kilometro galeria daude; horien artean, arkeologiarako interesgarrienak diren eremuak eta nahiko erraz sartzekoak direnak hesien edota ate metalikoen bidez itxi dira. Sarrera nagusiko gela handi horretan dago XXI kanpainatan induskatu den aztarnategia.

Sarrera nagusiko gela igarota (15etik 20 metrora arteko zabalera eta 3 metro baino gehiagoko garaiera) galeria bat dago, interesatzen zaigun haitzuloaren tartean ardatz nagusia dena. Ardatz nagusi horretan altuera ezberdinetan dauden galeriak batzen dira, horietako batzuk bertatik ibiltzeko modukoak. Lehenengo sakonunean, albo garai baten gainean, galeria bat hasten da, gero katazulo bihurtzen dena, eta hortik labar-irudien multzo nagusira, Camarín de las Ciervas izenekora, hel daiteke. Haitzuloko sarreratik 100 metro ingurura dago.

Galeria nagusitik jarraituz, eta bigarren sakonunea igaro ostean, inguru garai bat dago. Inguru honen albo batean bloke handi batzuk daude, eta beste alboan malda mailakatu bat; hortik, galeria nagusiaren mailan dagoen galeria luze batera heltzen da. Albo horretan, galeriaren lurzoruaren gaineko maila batean eta panel estalagmitikoaren gainean, zezen handia dago marraztuta eta grabatuta, hain ondo ikusten ez diren beste elementu batzuen artean Haitzuloko sarreratik 173 metrora dago.

Barrurago, eta galeria nagusitik jarraituz, pintura-aztarna gehiago daude: puntuak eta garrantzi artistiko gutxiago izan arren historia aldetik garrantzi bera duten beste zeinu batzuk ikus daitezke.

XX. mendearen zati handi batean meatzaritza jarduera ugaria zen kokalekuan dago haitzuloa, eta meatze-lan horietako batzuk oso bistakoak dira kobaren egungo geografian. Izan ere, lehen esku-hartze agresiboetako bat izan zen hori, klimaren baldintzak eta uren zirkulazioa aldatu zituena. Hala ere, ez dago ekintza horren eragina balioztatzen duen azterketarik.

Haitzulotik hurbil kareharri ustiategi bat dago, Galdames II harrobia, baita eskualde osoan ohikoak izan diren gainerako meatze-lanen aztarnak ere.

EKAINAREN 19KO 111/2012 DEKRETUAREN III. ERANSKINA

BABES-ARAUBIDEA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Aplikazio eremua.

Babes-araubide honetan jasotako aginduak bete behar dituzte monumentu-multzo izendatutako Arenaza-I haitzuloko santutegiaren mugetan dauden inguruek, egiturek, eraikuntzek eta bestelako elementuek, ebazpen honen I. eranskineko planoan jasotakoaren arabera.

2. artikulua.– Izaera loteslea.

Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 12. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz idatzi den babes-araubide hau Arenaza-I haitzuloko santutegiak monumentu-multzoaren kategoriarekin daukan kultur ondasun izendapenaren barruan sartzen da, eta hirigintza plangintzarekiko izaera loteslea du, hala ezartzen baitu lege horren 28.1 artikuluan xedatutakoak.

Hori dela-eta, Arenaza-I haitzuloa monumentu-multzo kategoriako sailkatutako ondasun moduan jaso behar da Galdamesko plangintza-tresnetako Kultura Ondarearen Katalogoan. Era berean, tresna horiek bat etorri behar dute (alde horien antolaketari dagokionez) haitzuloa behar bezala mantendu eta artatzeko berariaz egin den babes-araubide honetako zehaztapenekin. Nolanahi ere, plangintzako tresna horiek onartzeko Kultura Sailaren aldeko txostena beharko da.

Instrumentu horiek Kultura Ondasunaren honako babes-araubide hau eratu baino lehenago idatzi izan badira, aldatu egin beharko dira, babes-araubide honen babes-neurriekin bat etorri ez edo horien aurka badoaz.

3. artikulua.– Eremu-sailkapena.

Arenaza-I haitzuloaren babesa bermatzeko asmoz ezartzen den erabileren eta jardueren araubide orokorrean hiru eremu hauek mugatu dira: aztarnategia eta Santutegia babesteko eremua –aldi berean bi azpieremutan banatzen dena: haitzuloaren atarikoa eta gainerakoa–; Karstaren babes orokorrerako eremua, eta Erauzteko jarduerak baimenduta dauden babes orokorreko eremua..

1. eremua. Aztarnategia eta santutegia babesteko eremua: eremu honetan daude haitzuloa hainbat aldi kulturaletan okupatua izan zela adierazten duten aztarnak. Eremua bi gunetan banatzen da. 1.1 aztarnategia babesteko gunea: indusketa arkeologiko historikoak egiten diren atariko aretoa; haitzuloaren sarbideak eta areto handiak eratzen dute, haien artean ate metalikoak daudela, eta haitzulotik kanpoko inguruneak ere bai, haren aurreko aldeak, bertaraino iristeko eta gaur egungo bi ateek mugatzen duten gorako bideraino. 1.2 Santutegia babesteko gunea: santutegiko gainerako zatia, labar-irudiak dituzten haitzuloko aldeak barne.

2. eremua. Karstaren babes orokorreko eremua: espedientean eremu honentzat adierazitako muga gehienak bat datoz ondoko sistema karstikoarenekin eta urez elikatzen laguntzen duten zona mugakideekin; alabaina, San Pedro gunearen egoitzako hiri lurzorua kanpoan geratzen da. Hau da, mugak haitzuloaren ekialdean dauden depresioetan sortzen diren kareharrietan hasi (uren banalerrotik behera) eta, mendebalderantz, errepideraino eta herriraino heltzen dira. Hegoaldeko muga Aranaga errekarekiko failak eta herriak ezartzen dute. Iparraldeko muga, aldiz, irudizko lerro

batek ezartzen du, errepideko X 491.696 eta Y 4.790.211 koordenatuetatik abiatuta, 450 metroko kotaraino heltzen dena, X: 492.602 eta Y 4.790.471 puntuan; 450 metroko lerroan jarraitzen du, harik eta Vista Alegre auzotik hurbil dagoen aparkalekutik abiatuta X 492.289 eta Y 4.790.770 kotaraino doan lerroarekin bat egin arte (El Uno zona, Elvirako urmaelaren ondoan); ondoren, Hundimiento izenekoraino jarraitu, iparralderako bidea hartu, eta La Balsa del Sauco eta Mina Princesaren arteko banalerrotik igarotzen da; azkenean, Pico Mayor mendian amaitzen da. Lerro horrek ekialderantz egiten du Ganeran (823 m) gailurren lerroak eta Alto de la Arenak (728 m) Pico Mayor-eraino (740.37 m) marraztutako uren banalerroraino. Eremu hau mugatzen duen lerroa I. eranskinaren planoan marraztu da.

3. eremua. Erauzteko jarduerak baimenduta dauden babes orokorreko eremua.

Eremu honetan Galdames II harrobia dago. Haitzuloaren eraginpeko aldea ukitzen ez duen alde txiki bat utzi nahi da, haitzulotik eta karstetik urrunduta lan jakin batzuk egiten jarraitu ahal izateko eta jarduera ahalik eta kontrolatuen izanda.

Lau angeluko joera duen formarekin mugatu da, eta ondokoa da haren ibilbidea: irudizko lerro bat da, X 491.696 eta Y 4.790.211 koordenatuak dituen errepideko puntutik ateratzen dena X 492.602 eta Y 4790.471 puntuan 450 metroko kotara heltzeko; gero ipar-mendebalderantz jarraitzen du 450 metroko lerroak, harik eta Vista Alegre auzotik hurbil dagoen aparkalekutik abiatuta El Uno zonaraino (Elvirako urmaelaren ondoan) doan lerroarekin bat egin arte X 492.289 eta Y 4.790.770 koordenatuan.

II. KAPITULUA

ERABILERA ETA JARDUEREN ARAUBIDE OROKORRA

4. artikulua.– Irizpide orokorra.

1.– Babes-araubide honetan zehaztutako erabilerak eta jarduerak baino ez dira baimenduko. Ezarritako babesaren aurkako erabilera eta jardueratzat joko da araubide honetan adierazten ez den erabilera eta jarduera oro.

2.– Hala ere, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak berariaz eta aldez aurretik baimenduta, eta betiere babes-araubide honetan xedatutakoaren mendean, beste erabilera eta jarduera batzuk onartuko dira, lurra iraultzen ez bada eta babestutako guneko aztarna arkeologikoak errespetatzen badira.

5. artikulua.– 1. eremuko erabilerak eta jarduerak.

1.– Irizpide orokorra.

Oro har, eremu honetan jarraitu beharreko irizpidea honakoa da: erabat murriztea babes maila honetako ondasunaren egoera aldaraz dezakeen edozein giza jarduera, hau da, ondarearen hondarrak (aztarnategiak eta pinturak) eta ondarea gordetzen duen gunea (haitzuloa) suntsi edo aldaraz dezakeen erabilera zein jarduera oro saihestea.

Adierazitakoarekin bat etorriz, erabilera zientifikoak baino ez dira baimenduko eremu honetan, eta zaintza-lanekin, labar-artearen azterketarekin eta indusketa arkeologikoekin lotutako esku-hartzeak soilik egin ahal izango dira.

2.– Eraikuntzakoak ez diren erabilera eta jarduera zientifikoak.

Aztarnategiko lurrak iraultzeko jardueren artean, ikerketa zientifikora bideratutakoak baino ez dira onartuko eta, nolanahi ere, lan horiek egiteko Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak baimendutako egitasmoa aurretik dela.

Lehen adierazi den moduan, hauek dira Aztarnategia eta Santutegia Babesteko Eremua izeneko 1. eremuan baimendu diren jarduerak: indusketa arkeologikoak, labar-artearen azterketa eta kontserbazioa eta finkapena. Hau izango da jarduera horien edukia:

a) Indusketa arkeologikoa. Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen 45.2 artikuluak arautzen duenez, aztarna arkeologiko eta paleontologikoak ikertzea, dokumentatzea eta lurpetik ateratzea edo erauztea da, eta, aldi berean, sedimentuen estratigrafia aztertzea. Jarduera hori nahitaez egin behar da aztarnategiko aztarnak zaharberritzeko planen bat egin baino lehen, aztarnategiaren historiaren berri jakin ahal izateko eta, aztarnategiari balioa emateko aukerak aztertzean eta erabakiak arrazoitzean, oinarri sendoak izateko.

b) Labar-artearen azterketa (7/1990 Legeko 45.2 artikuluko E idatz-zatia): labar-artearen adierazpenak eta horien testuingurua metodo arkeologikoaren bidez aztertzeko, eta dokumentazio grafikoan jasotzeko eta erreproduzitzeko lanen multzoa da.

c) Kontserbazioa eta finkapena. Aztarnategiak (egiturak, materialak, etab.) zaintzeko oinarrizko jarduerak, tratamenduak eta esku-hartzeak dira, haien oinarria eta egonkortasuna bermatzeko egiten direnak. Jarduera horien helburua aztarnategiak ez hondatzea da, baita horiek hobeto ikustea eta horiek ulertzen eta ezagutarazten laguntzea ere.

Bada, eremu horretako zientzia-jarduerek (arkeologia-indusketak, azterketak, ikerlanak etab.) aztarnategia bere osotasunean barnebilduko duen egitarau arrazional baten barruan egon beharko dute, eta horrez gain, aztarnategia hobeto ezagutzeko lagundu beharko dute, gerora begirako balioztatzea ahalbideratzeko.

Administrazioak bi xede dituen proiektu bat landuko du: batetik, gaur egun haitzuloko pinturak zein baldintzatan dauden hobeto ezagutzea; bestetik, degradazio prozesuen aurrean babesteko eta artatzeko zeintzuk liratekeen baldintzarik onenak aurkitzea.

1) Kultura alorreko beste erabilera ez-zientifiko batzuk.

Aztarnategi arkeologikoaren 1.1 eremuan bidulgazio jarduerak onartuko dira, betiere lurra iraultzen ez bada eta babestutako guneko aztarna arkeologikoak errespetatzen badira. Horretarako, aldez aurretik jarduera horien ezaugarriei buruzko txostena beharko da, bai eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren aldeko txostena ere.

6. artikulua.– Bisitaldiak.

Pinturak dauden gunerako sarrera mugatua izango da. Soilik sartu ahal izango dira pintura horiek ikertu eta aztertzeko barruan egon behar duten ikertzaileak eta adituak, baldin eta bisitaren bidez haien ikerlana/azterlana hobe badaiteke edota pinturak zaintzeko neurriak ezartzen badira. Azterlanek Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Zerbitzuaren onarpena izan behar dute alderdi teknikoei dagokienez, eta haitzulora sartzeko Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren baimena behar da, ondasunaren titalarra hura den heinean. Dena dela, horien bisitak ere ahalik eta gehien murriztuko dira.

Jendeak Arenaza-I haitzuloa ikusi eta ezagutzeko irtenbide bakarra haren erreplika egitea da, etorkizunean artapena ziurtatu nahi bada, behintzat. Horretarako, egungo edo geroko teknologia

berriek eskaintzen dituzten teknikak erabili behar dira. Erreplika administrazioek bultzatu beharko dute, hartu beharreko neurri guztiak proiektu batean ezarri ondoren.

7. artikulua.– 2. eremuko erabilerak eta jarduerak.

1.– Irizpide orokorra.

2. eremuan erabilera eta jarduerak mugatu egingo dira, halako moduz non ez baita onartuko haitzuloaren baldintza naturalak aldaraz dezakeen inolako jarduera antropikorik, ez eta bertaraino irits daitezkeen iragazitako lurgaineko uretan ere. Oro har, nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak onartzen dira, baita basogintzakoak ere, baina betiere jarraian zehazten diren mugak bete beharko dira.

2.– Eraikuntzarik gabeko erabilera eta jarduera baimenduak.

2.1.– Basogintzako jarduerak eta erabilerak.

Eremua basogintzarako ustiatzea, eta birlandaketak, mozketak, ateratzeak eta antzeko jarduerak egitea baimendu da, baina baldintza hauek bete behar dira:

a) Mozketa soila onartuko da bakarrik, sustraiak erauzi gabe, motzondoak bere horretan utzita alegia.

b) Zuhaitzak ez dira inoiz aterako arraseko mozketaren bidez, bakanketa-planaren bitartez baizik.

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailari baldintza hauek guztiak zehaztu beharko zaizkio txosten batean, lanok gauzatu aurretik, sailak onar ditzan. Kultura Sailak jardueretarako baimena eman eta garatu bitartean ikuskatu egingo ditu.

2.2.– Nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak eta erabilerak.

2. eremuan abeltzaintzako eta nekazaritzako erabilerak daude baimenduta, baldin eta industriako ongarriak erabiltzen ez badira eta sortzen den ura eremutik behar bezala ateratzen bada. Lurgainean –«Camarín de las ciervas» izeneko irudi-multzoaren gainean alegia–, eta haren ingurumarian (irudion gelatxoaren barne-babeserako eremua) abereen bazkatzea eta belar-mozketa baino ez dira onartuko, betiere belar horeretan ongarri industrialik erabili gabe. Mindak ezin dira inola ere kontrolik gabe pilatu. Abeltzaintzako jardueraren ondoriozko mindekin ezer egin baino lehen Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Zerbitzuaren txostena behar izango da.

3.– Baimenduta dauden eraikuntza eta azpiegitura erabilerak eta jarduerak.

Soilik baimenduko dira eraikuntzako erabilerak eta jarduerak baldin eta eremua bera eta ikerketarako beharrezkoak diren eraikinak eta instalazioak babestea badute helburu. Horiek guztiak baimentzeko, proiektu bat aurkeztu beharko da, aztarnategia ikertzeko eta zaintzeko eta hura balioztatzeko premia adierazten duena, hain zuzen; proiektu hori, gainera, arkeologo eskudun batek izenpetu beharko du. Halaber, beti beharko da Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren aurretiazko baimena.

Araubide hau indarrean jartzen denean 2. eremuan dauden eraikinak eta azpiegiturak onartuko dira, bereziki Ledo eta Laida herrietakoak. Baina zabaldu edo horien erabilera aldatu nahi bada Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zerbitzuaren aldeko txostena behar izango da. Zerbitzuak txostenean egiaztatu behar du aldaketa horiek ez diola arriskurik ekarriko ondareari. Alabaina, irizpide orokor gisa, egoitzarako eraikin berriak saihestuko dira eta eremuan dauden azpiegiturak kentzeko joera izango da.

Pista irekiak badaude, aztertu ostean beharrezkotzat jotzen ez direnak itxi egingo dira; aurretik zeuden jarduerak garatzeko behar direnak baino ez dira utziko. Halaber, eremu honetako hondakin edo higakinak pilatzea saihestuko da, batez ere harrobi moduan erabilitako tokietan.

Harrobiak zona horretan dituen azpiegiturak (birrintzeko makina eta zinta) orain arte bezala utzi ahal izango dira, baina ezin izango dira zabaldu edo horien erabilera aldatu.

Eremuan egiten den beste edozein azpiegitura behin-behinekoa eta gero kentzeko modukoa izango da; horrez gain, azpiegitura hori jartzen den ingurua leheneratzeko plan bat egin beharko da. Dena den, lehenbizi Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Zerbitzuak onartu eta haren gaineko txostena egin behar du. Erabili ostean ingurua leheneratu egin behar da.

8. artikulua.– 3. eremuko erabilerak eta jarduerak.

1.– Irizpide orokorra.

Eremu honetarako irizpide orokorra bertan garatzen diren erabilerak eta jarduerak mantentzea da, erauzketa-lanari lotuta badaude. Baina erauzteko jardueren barruan lehergailuen erabilera eta horiek erabiltzeko modua mugatuta egongo dira. Harrobitik kobaraino heltzen diren dardarak mugatu nahi dira. Horretarako, babes-araubideari leherketen eta distantzien taula bat erantsi zaio, ingurunearen ezaugarriak aintzat hartuta 0,5 mm/s-tik beherako dardara-mailak izateko kalkulatuta dituena. Beraz, leherketak ohiko tekniken bidez (sekuentziazioa, etab.) egiteaz gainera kargak taulan ezarritakora egokitu beharko dira.

2.– Baimenduta dauden eraikuntzako eta eraikuntzarik gabeko erabilerak eta jarduerak.

Eremu honetan harrobiaren jarduera guztiak baimentzen dira, baina muga tekniko batzuk ezarrita. Mendigunea isolatzeko politika egin behar da, lehertzen den gunea koba dagoen mendigunetik bakartzen duten aurre mozketako teknikak oinarritzat hartuta.

Aurremozketako politika horiek ez ezik, leherketa beheko taulako karga eragingarri horietara egokitu behar da, horrela pinturaren gelatxora heltzen den dardara ahalik eta txikiena izango delako:

Distantzia (m)	Karga (Q)
500	54,53
550	65.99
600	78.53
700	106.89
800	139.61
900	176.69
1000	218.14

Taula grafikoki ematen da adierazpen honi erantsitako planoko isolineetan. Babes-araubide honek onartzen dituen gehieneko kargak ezartzen dira bertan, betiere mendigunea zabaltzeko legeen arabera, pinturen gelatxoan 0,5 mm/s-tik beherako (gehienez onar daitekeena) dardara egoteko.

3.– Baimendutako beste erabilerak eta jarduerak.

Beste jardueraren bat egin nahi bada Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Zerbitzuaren txostena behar izango da eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari horren berri eman beharko zaio.

Bizkaiko Foru Aldundiak egoki diren kontrolak egingo ditu haitzulo barruan, dardarak gehienez 0,5 mm/s-koak direla zaintzeko. Bi kasuotan, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak jarduera eten ahal izango du eta zehapen espedientea hasi ahal izango du Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legeko 20.1 eta 23 artikuluak urratzeagatik. Ondorioz lege horretako 108. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako isunak ezarri ahal izango dira. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Ondarearen Zerbitzuari horien berri eman beharko die eta Zerbitzuak, gertaerak aztertu ostean, babes-araubide hau inguruabar berrietara egokitu ahal izango du.

III. KAPITULUA

BESTELAKO XEDAPENAK

9. artikulua.– Gizarte-interesa.

Arenaza-I haitzuloaren multzoa (aztarnategiaren okupazio-mailak, haitzuloaren egitura naturala, labar-pinturak...) eta hura babesten duen ingurunea gizarte-intereseko gunetzat hartuko dira, Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legeko 21. artikuluak araututakoari jarraikiz.